

## **El mundo, una familia – Hauek dira nire anai-arrebak**

Carta obispos del País Vasco

Campaña Misiones Diocesanas marzo 2017

Queridos hermanos y hermanas.

1. Celebramos una nueva campaña de Misiones Diocesanas Vascas bajo el lema “El mundo, una familia. Hauek dira nire anai-arrebak”. Efectivamente, somos conscientes de que caminamos hacia lo que conocemos como un mundo globalizado. Las nuevas capacidades de comunicación, los transportes intercontinentales, los flujos migratorios, las economías transnacionales hacen que el mundo este cada vez más intercomunicado, donde el espacio se ha hecho más pequeño por la posibilidad de acceder de muchas maneras a regiones que hasta hace pocas décadas nos parecían remotas.

2. Pero también es verdad que tenemos que examinar detenidamente si esa globalización es un proceso realmente humanizador y constituye un progreso real para las personas, familias y pueblos. Hay voces que alertan sobre la globalización de la indiferencia, sobre una economía que no está centrada en el bien de las personas, sobre la depredación de recursos naturales, las enormes bolsas de pobreza y hambruna que junto a las guerras e injusticias generan multitud de procesos migratorios y desplazamiento de refugiados en condiciones verdaderamente indignas e inhumanas. Puede parecer que interesen principalmente las cuestiones económicas, la disposición de recursos naturales, energéticos y materias primas, postergándose la primacía de la dignidad de las personas, familias y pueblos.

3. Por este motivo, es necesario extender una cultura de la solidaridad, una globalización de la fraternidad, hacer de este mundo un hogar al estilo de una familia. Es preciso, en cierto modo, “familiarizar” el mundo. En la familia todos tienen su lugar. Son queridos por quienes son y ayudados a vivir una vida digna en camino de una plenitud. En la familia no existen descartados o desahuciados. Quien se haya en condiciones de necesidad o desigualdad es ayudado y acompañado a dar lo mejor de sí integrándose en la vida cotidiana como un don para todos.

4. También la Iglesia es la familia de los hijos e hijas de Dios. Una gran familia extendida por toda la tierra que tiene como misión testimoniar y

edificar el Reino de Dios, siendo como un sacramento de salvación en el seno de la humanidad. En la Iglesia no hay fronteras. Cristo ha derribado todos los muros que nos separaban haciendo en Él, por su Misterio Pascual, un único pueblo de hermanos y hermanas, discípulos del Buen Pastor, enviados como el samaritano a hacer presente la misericordia de Dios, dando gratis lo que gratis hemos recibido: el don del amor de Cristo.

5. En la familia, los pequeños son los primeros. Nuestra historia como Misiones Diocesanas puede leerse en esta clave familiar. Hemos querido ser hermanos con nuestros hermanos de otras latitudes, en actitud de servicio, acogida recíproca, solidaridad y fraternidad. Así lo queremos seguir siendo hoy. Queremos continuar fortaleciendo los lazos de hermandad con otras Iglesias que hace tiempo fueron “tierra de misio ad gentes”, pero que en la actualidad son jóvenes Iglesias llenas de vitalidad que miran el futuro con ilusión y esperanza.

6. La campaña de este año quiere constituir un impulso a renovar la vocación misionera de nuestras Iglesias locales. Pedimos a Dios que continúe suscitando vocaciones a la misión en nuestra tierra. Así mismo, pedimos al Padre que fortalezca la ayuda recíproca entre nuestras Iglesias y las Iglesias hermanas con las que compartimos lazos de fraternidad y donde muchos de nuestros misioneros y misioneras han desarrollado y siguen desempeñando con ilusión su tarea evangelizadora. También es un día para ofrecer la ayuda económica generosa que colabore en el sostenimiento de esta labor misionera y de los diversos proyectos que gracias a estas ayudas se desarrollan en estas Iglesias.

7. Que San José, que fue custodio bueno y fiel de Jesús y de la Virgen María, proteja y también custodie a quienes se entregan con ilusión a la tarea misionera y suscite abundantes vocaciones a la misión. También presentamos esta intención a María, Madre de la Iglesia y Reina de las familias. Que Ella nos ayude a hacer de este mundo un hogar donde nadie quede excluido o descartado, y de la Iglesia la familia de los hijos e hijas de Dios que anuncien y edifiquen el Reino de Dios en medio de la humanidad.

Con gran afecto.

+ Mario, obispo de Bilbao

+ Jose Ignacio, obispo de San Sebastián

+ Juan Carlos, obispo de Vitoria

## **El mundo, una familia - Hauek dira nire anai-arrebak**

Euskal Herriko gotzainen mezua

Elizbarrutietako Misioen kanpaina. 2017ko martxoa

Anai-arreba maiteok.

1. Euskal Elizbarrutietako Misioen kanpaina ospatuko dugu, aurten, “El mundo, una familia. Hauek dira nire anai-arrebak” goiburupean. Hain zuzen ere, jakin badakigu mundu globalizatua deitzen den horretarantz goazela. Hartu-emanerako gaitasun berrien, kontinentearteko garraioen, joan-etorri migratzaileen, ekonomia transnazionalen eraginez, munduko interkomunikazioa gero eta handiagoa da, eta eremua txikitu egin da duela hamarkada batzuk urrutiko lekutzat genituen lurraldeetara era askotara iristeko aukera dugulako.

2. Baina, egia esan, delako globalizazio hori sakon aztertu beharko genuke, benetan gizatasuna dakarren eta gizabanako, familia eta herri guztiei benetako aurrerapena dakarkien prozesua den ikusteko. Badira axolagabekeriaren globalizazioaz, gizakien ona lehenesten ez duen ekonomiaz, baliabide naturalen harraparitzaz, migrazio-prozesuak eta inongo duintasun eta gizatasunik gabeko baldintzetan hara eta hona dabiltzan errefuxiatuen desplazamenduak eragiten dituzten egundoko pobretasun eta gosetez ohartarazten duten ahotsak. Gizabanakoen, familien eta herrien duintasunaren lehentasunaren ginetik, nagusiki auzi ekonomikoak, baliabide naturalak, energetikoak eta lehengaiak jadesteko aukerak lehenesten dira.

3. Hori dela-eta, ezinbestekoa da elkartasunaren kultura, senidetasunaren globalizazioa zabaltzea, mundu hau familia baten antzeko etxe bihurtzea. Ezinbestekoa da, nolabait, mundua “etxekotzea”. Familian, denek dute beraien lekua. Direnagatik dituzte maite, eta laguntasuna jasotzen dute osotasunerako bidean bizimodu duina bizitzeko. Familian ez da baztertu edo kaleraturik. Beharrezanean edo desberdintasunean dagoenari laguntza ematen zaio onena eman dezan, eguneroko bizitzan txertatuz guztiontzako dohain bezala.

4. Eliza ere Jainkoaren seme eta alaben familia da. Mundu osoan zehar banatutako familia handia da, Jainkoaren Erreinuaren lekukotasuna emateko eta Erreinu hori eraikitzeke misioa duen eta gizadiaren barruan salbamen-sakramentu den familia. Elizan ez dago mugarik. Kristok behera

bota ditu banantzen gintuzten harresi guztiak, Berarengan, Pazko Misterioaren bitartez, anai eta arreben, Artzain Onaren ikasleen herri bakarra eginez, samariarraren antzera, doan jaso duguna, hau da, Kristoren maitasunaren dohaina, doan emanaz, Jainkoaren errukia agertzera ematera bidaliak direnen herria.

5. Familian, txikiak dira lehenak. Elizbarrutiko Misioen historia familia ikuspuntu honetatik irakur daiteke. Anai-arreba izan nahi izan dugu beste lurralde batzuetako anai-arrebekin, zerbitzuzko, elkarrekiko harrerazko, elkartasunezko eta senidetasunezko jarrerarekin. Eta horixe nahi dugu gaur ere. Garai batean “tierra de misio ad gentes” izan ziren baina gaur egun etorkizunari ilusio eta itzaropenez begiratzen dioten Eliza gazte eta bizi-biziak diren beste Eliza batzuekiko senidetasunezko lokarriak estutzen jarraitu nahi dugu.

6. Aurtengo kanpainak bultzada izan nahi du gure lekuko Elizen misiolari bokazioa berriztatu ahal izateko. Gure herrian misiorako bokazioak sortzen jarrai dezala eskatzen diogu Jainkoari. Beste eskari bat ere egiten diogu Aitari: sendo ditzala gure Elizen eta misioiko Eliza ahizpen arteko lokarriak, aspalditik senidetasunak lotzen gaituelako eta Eliza haiek izan direlako, eta direlako gaur egun, gure misiolarien jardunleku, bertan garatu dutelarik eginkizun ebanjelizatzailea. Diru-laguntza emateko eguna ere bada, hemengo Elizen laguntza behar-beharrezkoa delako hango Elizetako misiolari jardunari eusteko eta era askotako egitasmoak aurrera eramateko.

7. Jesusen eta Maria Birjinaren zaindari on eta leiala izan zen San Josek babes eta jagon ditzala misiolari egitekoan buru-belarri ari direnak eta sor ditzala misiorako bokazio ugari. Eskari bera aurkezten diogu Maria Elizaren Ama eta familien Erreginari. Berak lagun diezagula mundu hau inor kanpoan edo baztertuta utziko ez duen familia bihurtzen, eta Eliza gizadiaren erdian Jainkoaren Erreinua iragarriko eta eraikiko duten Jainkoaren seme eta alaben familia egiten.

Bihotzez.

+ Mario, Bilboko gotzaina

+ Jose Ignacio, Donostiako gotzaina

+ Juan Carlos, Gasteizko gotzaina